



**BERDINTASUNA,  
LARRIALDI SOZIALAREN ERDIGUNEAN**

**1. elkarrizketa: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko premiazko erronkak**

## **Zein da gogoeta-testuingurua?**

Azken asteetako larrialdi sozialak konfinamendu mugagabea eragin du gizartearen zati handi batentzat. Osasun arloan, etxea herritarrentzako eremu segurua izan da, baina gauzak ez dira horrela izan indarkeria jasaten duten emakumeentzat, ez eta haien seme-alabentzat ere. Konfinamenduak isolamendu sozial iraunkorra ekarri du. Horregatik, emakume horiek erasotzailearekin bizi behar izan dute etenik izan gabe.

Konfinamendu aldian, indarkeriagatiko salaketek behera egin dute. Aldiz, informazio-telefonoetara eta indarkeria arloan laguntzeko egindako deiek % 25 egin dute gora. Badirudi emakumeek aukeratutako babes-estrategiak aldatu egin direla, telefono bidezko laguntza psikologikoa eta eustea lehenetsiz. Aldiz, aldaketa-ekintzek behera egin dutela dirudi: salaketa, haustura, etxetik ateratzea eta abar; izan ere, are ziurgabetasun handiagoa sor lezakete.

Ildo horretatik, indarkeria jasaten duten emakumeei arreta eskaintzeko zerbitzuek (bai lehen mailako arretakoak, bai bigarren mailakoak) eskainitako arreta itxi edo aldatu egin behar izan dute, eta baliabideetara jotzen zuten emakumeekin harreman eta esku-hartze modu berriak hasi behar izan dituzte. Horrela, erasotzailearekin bizi ziren emakumeek eta bizi ez zirenek esku hartzeko bideak aldatu direla nabaritu dute.

Itxura guztien arabera, deseskalatzeak eta “normaltasunera” itzultzeak luzea, konplexua eta nahasia izan den konfinamendu-aldiaren inpaktuak ekarriko ditu berekin, eta ondorioz, baita indarkeria jasaten duten emakumeei arreta eskaintzeko zerbitzuen eta baliabideen bidez arreta eman behar zaien bizipen berriak edo kanpo-testuinguru desberdinak ere.

Era berean, beharrezkoa izango da konfinamendu-aldian indarkeria jasan duten emakumeei entzutea haien bizipenak eta garatu dituzten estrategiak ezagutzeko, baita bizi izan duten horren narratiba itzuli ahal izateko ere (erresistentzia, eustea...). Era berean, garrantzitsua izango da aztertzea konfinamenduak orotara hartuta nola eragin dien, baita egoera horretatik etorritako ondorioei arreta jartzea ere. Bizi izandako indarkeriak, isolamenduak eta sistema desberdinen erantzunak mantsotzeak arrastoa utziko dute eta esku hartzeko garaian arreta jarri beharko zaio.

Izan ere, esku hartzeko baliabideak aktibatu eta unean uneko egoeretara egokitu behar dira. Horretarako, garrantzitsua da indarkeria jasaten duten emakumeekin esku hartzen duten profesionaleri entzutea; izan ere, horiek konfinamenduan esku hartzeko garaian izandako xehetasunen berri eman dezakete, baita epe ertainera-laburrera aurreikusten diren ondorioen berri ere. Helburu horrekin jarri da martxan gogoeta-saio hau.



## **Zein da saioaren helburua?**

Konfinamenduan emakumeen kontrako indarkerian esku-hartzeak izan duen garapenari buruzko gogoeta egitea (aldaketak jardueran, profil berriak, eskaerak eta behar desberdinak, esku hartzeko praktikak aldatzea eta abar). Era berean, epe labur-ertainean, arretari eta arreta emandako emakumeei begira, esku-hartze zerbitzuetatik aurrez ikusten diren ondorioei buruz pentsatzea. Horrekin, epe laburrean eta ertainean esku-hartzearen etorkizunerako orientazioak identifikatu nahi dira.

## **Noiz ikusiko dugu elkar?**

Ekainaren 17an, asteazkenean, 17:00etatik 18:15era.

## **Nola sar naiteke?**

Bete [galdetegia](#) eta saioa baino egun batzuk lehenago sartu ahal izateko esteka jasoko duzu.